

Fleury-Mérogis eko presondegian asmatu Gurutzearen Bidea (2015)

1° estazioa : Jesus hiltzerat kondenatua

« Auziperatua naiz, eta kondenatua »

Jainkoaren Hitza (Mt 26, 47-50)

Jesus mintzo zelarik oraino, etorri zen Judas, Hamabietarik bat, eta jendalde handi bat harekin, ezpata eta makilak eskuetan, apezburu eta herriko zaharrek igorriarik. Saltzaileak seinale bat emana zioten: «Nik musu emanen diotana, hura da, arrasta zazue». Berehala, Jesusenganat hurbildu eta erran zuen: «Agur, Irakasle jauna!» Eta musu eman zion. Jesusek erran zion: «Adiskide, egizu egitekoa!» Orduan, hurbildurik, eskua Jesusen gainean ezarri eta arrastatu zuten.

Lekukotasuna

"Hautua baginuen, gaizkia hautatu dugu. Legea hautsi dugu, jujatuak gira, normala da. Auzitegian, beldur gira, gure buruaz deskonektatuak bagine bezala. Gure bizi guzia ezagutzen ez ditugun jende batzuen aitzinean behar dugu botatu, ez gira gehiago pertsona bat. Auzi denboran, ez da gehiago lekurik barkamenarentzat. Zigorra entzutean, barnez inarrosiak gira. Gure burua lehertua balitz bezala. Gristino izanez, otoitz egin dut. Bainan otoitzak ere ez daut deus ekarri ! Geroago, pentsatu dut otoitz hori bestela behar nuela egin. Zigorak ohartarazten daut bekatoros bat naizela.



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, jujatua eta kondenatua izan zira gu gure bekatuetarik salbatzeko : Eskerrak zuri, bihotzean bakea eman daukuzu gizonen auzipean ginaudelarik. Egizu, Jainkoaren baitan damaturik, zutan fede atxik dezagun. Kristo baitan egon gaiten, egiazki aldatuko gaituen azken jujamenduraino.

2º estazioa: Jesus bere gurutzeaz kargatua


“Nere iragan historiaren pizu izigarria.”

Jainkoaren Hitza (Jn 19, 14-17)

Bazkoko prestaketen egiteko eguna zen, eguerdialdea. Pilatok judueri erran zioten: – Horra zuen erregea! Orduan, heiek oihuka: – Ken, ken ! Gurutzerat hori ! Pilatok, berriz: – Zuen erregea gurutzitzatu behar dutala ? Apezburuek ihardetsi zuten : – Ez dugu enperadoreaz beste erregerik. Orduan, Pilatok heien esku utzi zuen gurutzitza zezaten. Jesus hartu zuten, beraz, eta, gurutzea berak zeramala, hiritik «Buruhezur» –hebrearrez Golgota– deitu lekurat atera zen.

Lekukotasuna

"Atxilo aldiak orroitzen naiz, estresean nintzen, pipatu nahi nuen eta deus ez izanki ! Gogorat heldu zitzaiztan telebixtan ikusi presondegietako filmak. Nindagon zer gertatuko ote zitzaiztan. Sistemaren aurkako herra senditzen nuen, denak errautsi nahi nituen, eta oroz gainetik, beldur nintzen. Orduan gogoetan egon naiz egin nituen guzietaz, durduzatu artinoko gogoetak. Nola xahutu dutan nere bizia !”



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, bihotz barneak ezagutzen dituzu :
erakutsaguzu gure bizia den bezala ikusten, bai eta onartzen,
zure barkamena errezebi dezagun eta jakin gure buruari barkatzen.

3° estazioa: Jesus lehen aldikotz erortzen da

“Nere itsukeria, erorrarazten nauten ekintzak”

Jainkoaren Hitza (Ps 141, 4-7)

Hatsa itzaltzen zaitanean, badakizu norat noan; nabilen bidean sarea hedatu dautate. Beha inguruan eta ikus: ez nau nehork ezagutzen, ez dut aterberik, ez da nehor nitaz axolatzen. Oihuka ari nitzazu, Jauna, diotalarik: «Zu zaitut ihesleku, nere ondare, bizien lurraldean!» Zaude adi nere oihuari, lur joa bainaiz ! Libra nezazu zapatzaileenganik, ni baino indartsuagoak direnenganik.

Lekukotasuna

"Atxilotua izan aitzin, diru aise bilduaz lilluratua nintzen. Badakit hemen naizela orain, ez dutalakoan behar zena egin . Dena galtzen dugularik, orduan gira ohartzen ez zuela balio holako bide bati lotzea. Presondegian sartzean, ainitz gauza aurdiki dira nere inguruan. Belauniko banintz bezala. Dena egiten dut ez arras erortzeko. Emeki emeki xutitzerat entseiatzen naiz. Batzuk azken mugetaraino aspertzen banaute ere.”



Fleury-Mérogis
eko atxilotuek
egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, zure eskutan ezartzen ditugu gure hauskortasunak; zato eta zure indarraz bete gaitzazu, emaguzu besten konprenitzeko bihotz minbera, tzarkeria, kolera eta berotzearen aitzinean bihotz leun, ezti eta artatsua, bakea eta barkamena bilatzen duena.

4º estazioa: Jesusek bere ama aurkitzen du bidean

“Nun dago nere ama ? Zer senditzen duke ?”

Jainkoaren Hitza (Lc 2, 19)

Mariak, berriz, gertakari horiek oro gogoan atxikitzen zituen eta bere bihotzean hausnartzen.



Lekukotasuna

" Zure ama auzitegian ikusten duzularik, ez dakizu nun gorde. Zure ama ikustea edonor baino hunkigarriagoa zautzu. Ikusten dut min egiten diotala, eta horrek daut neri min egiten.

Bere bisaiako zimurdurak ikustean, nago nere gatik dela holakatua. 20 urte ditut eta jadanik zahartua bezala naiz. Nere ama nuen konfiantzazko bakarra...

Ezin dut hortaz gehiago hitz bat ere erran, sobera zaila zait ...”

Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, lagun gaitzazu gure ingurukoak maitatzen, gure ama naturalki maite dugun bezala. Jesus Jauna, eskerrak zuri gure amarengatik.

5° estazioa: Zimun Zirenearrak Jesus laguntzen du

“Zendako lagundu nere anaia ? Ni nork lagundu nau ?”

Jainkoaren Hitza (Mc 15, 20-21)

Trufatu ondoan, soineko gorria erantzi eta bere soinekoez jantzi zuten. Gero, kanporat ereman zuten gurutzean itzatzeko. Landetarik etxerat zoan bat, Simon Zirenekoa (Alexandro eta Ruforen aita), Jesusen gurutzearen eremaitera bortxatu zuten.

Lekukotasuna

" Zimun Zirenearrak ez zuen berak hautatua Jesusen gurutzea garraiatzea. Konfiantzaz onartu du misione hori. Ez dut hautatu nere presondegi gelako laguna; alta bada, ohartu gabe ere, egun guziez elgarri kasu egiten dugu. Hemen, giltzapean, estonatu naiz uste baino gehiago elkartasun kausitzeaz. Hemen egiazki elgar laguntzen dugu. Kanpoan nintzelarik, ez nuen uste nere laguntza eskain nezakeela. Laguntzeak burua uretik kanpo beiratzten daut."



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, egizu zure aurpegia ikus dezagun gure bidean ezartzen daukuzun hartan, gure laguntza eske etortzen zaukularik. Idek otoi gure aitzinean zinezko askatasunerako bidea.

6° estazioa: Beronikak Jesusen aurpegia xukatzen du

“Giza aurpegia goxatzen duen amultsutasuna.”

Jainkoaren Hitza (Is 53, 3-4)

Mespretxatua zen, eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sofritzen ikasia, bere aurpegia estaltzen duena iduria. Mespretxatua, kasurik ere ez diogu egin. Alta, gure gaitzak zituen bere gain hartu, gure oinazeen zama jasan. Guk, berriz, Jainkoak joa zela uste ginuen, Jainkoak zigortu eta atsegabetu zuela.

Lekukotasuna

"Gozotasuna bada, edo herra da. Goxotasun aurpegi guti ikusten dugu. Adiskideak kanpoko ibilaldian, bisita bat mintzalekuan, permisione baten berria... Goxotasunaren giblean, haserre parte bat atxikitzen dugu beti. Gozotasuna, izan daiteke ere gure zaindari baten agurtzea."



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, emaguzu hitz eta bihotzaren gozotasuna. Maitatzea zaila zaigunentzat, gure ekintzak onak izan ditela beti. Umil izan gaiten bertzeen aitzinean, eta jakin dezagula elgar errespetatzen, gure burua bortizkeriaz itoa sendi dugularik ere.

7° estazioa: Jesus bigarren aldikotz erortzen da

“Jujamendua eta preso altxatzea, mundu bat aurdikitzen da.”

Jainkoaren Hitz (Hb 5, 7-8)

Kristok, mundu huntan bizi zelarik, oihu-min eta nigarretan egin zion otoitz eta galde heriotzetik libra zezakeenari, eta Jainkoari emana zelakotz, harek aditu zuen. Semea izanik ere, oinazearen oinazeaz ikasi zuen obeditzen.

Lekukotasuna

"Erortzea, lurreratzea da. Bietan erortzea, gaitzaren mintzea ! Atxilotzeak gure gizatasuna errausten dauku. Gure biziak aurdikitzen dira, puskatzen. Zoiziateak botatzen gaitu, eskubide eta askatasun guziak kentzen. Sofritzen dugu, triste gira, familiako loturak galdurik. Batzutan, guhaurek dugu gure burua preso ezartzen : espiritual mailean, edo gorputzekoan... Ni aldiz, Kristoren ganik hurbildu naiz : Jainkoaren Hitzari esker, edertasun, argi eta indar atxeman dut. Otoitzak bestelakotzen lagundu nau. Esperantza eta zigorraren soportatzeko indarra ekar dezake. Nik otoitzean, bizi berri bat, berpizte bat galdegiten dut.”



Fleury-
Mérogis eko
atxilotuek
egin
marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, gure oinak begira itzazu erortzetik. Lagun gaitzazu gure ekaitzen iragaiten ; gure ilundura egunetan, zato gure ondorat, ez gaitzazula bakarrik utz, gure pena eta zigorraren kargapean leherturik.

8° estazioa: Jesusek Jerusalemeko emazteak aurkitzen ditu bidean

“Haur eta hurbilekoen sofrikarioa.”

Jainkoaren Hitza (Lk 23, 27-28)

Herriko jendalde handia Jesusi jarraitzen zitzaion, bai eta emazte ainitz ere bularra joz deitoreka harengatik. Itzulirik, Jesusek erran zioten: – Jerusalemeko emazteak, neregatik ez nigar egin; egizue nigar ziharengatik eta ziharen haurengatik.

Lekukotasuna

"Gizon gaixtoari min egiten diogularik, gizon onari ere berdin min egiten diogu. Ez da nigar egin behar Jesusen heriotzaren gatik, baina bai guk egin gaizkiaren gatik. Gaizki horrek gure hurbilekoen ganik bereizten gaitu, haiek ere gu gabe gelditzen direlarik, jakinik ere ez dela betikotz."



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, Jerusalemeko emazteen oinazea entzun duzu: lagundu dituzu beren denborako sozietatearen historia egiazki ikusten eta onartzen. Lagun gaitzazu denentzat mundu zuzen eta elkartuago baten eraikitzen. Zubi batzu eraiki ditzagun gure inguruko giza elkartean artean.

9º estazioa: Jesus hirugarren aldikotz erortzen da

“Xutitu eta xutik egon. Nere bizia berreskuratu.”

Jainkoaren Hitza (Ph 2, 7-8)

Aitzitik, bereaz hustu da, esklabogoa hartu eta jendeen iduriko bilakatu. Jende bezala agerturik apaldu da, hiltzeraino obedituz, gurutzean hiltzeraino.

Lekukotasuna

"Fededun girelarik, nihork ezin gaitu goilurretarik kendu. Goiti buruz so eginez, Jesus ikusten dut, eta hura infernu errekan dago ! Ni, egun guziz hemen izaitea ezin soportatuz aspertua nago ! Nola egiten du ? Jesusi pentsatzen dut, nago ez duela hori guzia deusen gatik pairatu. Haren biziaren emaitzaz hazi behar dut.”



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia..

OTOITZA

Jauna, barkamenduz, galdatzen dautzut zuk ni eramaitea, zu gabe deus ez baitezaket. Oi Jesus nere gozoa, deitzen zaitut lagun nezazun: zuri nere hutsak aitortuz, nere karga nahi dut arindu. Eta zurekin eskuz esku, bideari jarraiki. Nere lagun fidagarria zira.

10º estazioa: Jesusi bere arropak kentzen diozkate

“Nere duintasuna ?”

Jainkoaren Hitza (Jn 19, 23-24)

Jesus gurutzizatu ondoan, soldaduek haren soinekoak hartu eta lau zati egin zituzten, zati bana; eta gero tunika. Bainan josturarik gabea baitzen, osoan ehoa, elkarren artean egin zuten: «Ez dezagun urra; xotxak atera ditzagun norena izanen den». Hala bete zen Liburu Sainduak diona: Nere soinekoak elkarren artean dituzte partekatu, nere tunikaz xotxak ateratu. Hori egin zuten soldaduek.

Lekukotasuna

"Nere askatasuna, nere intimitatea eta ontasunak galdu ta, biluzik nago. Kanpotiar naiz, nere hitzak ezin ditut partekatu, atxilotzeak hautsi nau. “Ez huen hunarat jin behar, ez huen astokeriarik egin behar”. Utz nezazue nere hutsen pagatzerat duintasunez. Nere duintasuna galtzen badut, nere arimaren arropak galtzen ditut, nere begien argia da itzaltzen. Kristoren begien pean egonez, nere duintasuna beiratu dut, hura otoiztuz, presondegiak biluzi nau bainan ere irabazten lagundu. Emanez, utziz leher egin gabe, handitu naiz, bertzearen sofrikarioari ideki naiz."



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia..

OTOITZA

Jesus Jauna, gurutzearen bidean, zure arropak kendu dauzkitzute, gizatasun biluziak zure jainkotasunaren handia agertzen deraukula. Utz nezazu zure amodiotik bereizten nauen guzitik biluztera, zure agintzaren partaide egina izan nadien.

11° estazioa: Jesus gurutzitzatzen dute

“Preso gelan itzatua, urrikiz jana ?”

Jainkoaren Hitza (Lc 23, 32-33)

Jesusekin batean bi gaizkile ere hiltzerat ereman zituzten. «Buruhezur» deitu tokirat heldu zirenean, gurutzitzatu zuten Jesus, bai eta bi gaizkileak ere, bat eskuinean eta bestea ezkerrean.

Lekukotasuna

"Hemen senditzen dut ez naizela errespetatua. Gaixtaginak, nehork ez ditu maite ! Jesusen aldean itzatua izan banintz, bietarik zoin izanen nintzen ? Maite ditudan “kanpokoeri” pentsatzeak min egiten daut, tortura bat da heientzat eta niretzat. Bai, ainitz damu dut : bestaldian, bestela egingen dut. Samindura, tristezia eta injustizia sendimenduz betea nago.”



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna,
emaguzu
azkar irauteko
indarra,
gure bizian xutitzeko,
zu hil ondoan
xutitu zinen bezala.

12° estazioa : Jesus gurutzean hiltzen da

“Deusez izaitearen nekea, nere buruaz beste egiteko tentaldia.”

Jainkoaren Hitza (Jn 19, 30)

Jesusek erran zuen: «Dena bururatua da». Eta, burua apaldurik, azken hatsa eman zuen.

Lekukotasuna

"Galdu duzu, bidez galdua zira, ezin duzu deus erran... Zure lana eta etxearen galtzeaz harrিতua zaude, berdin ere emazte eta familia... Zure buruaz beste egin ? Nere anaiak erran daut: “Aise irabazi dirua, eta gero presondegian, aise galdua ! Nahiago dut hilabetero smika irabazi eta libro izan !” Bai egia da, ez dut nere buruaz beste eginen dena despeditzeko, bainan nere buruari “sekulan ez gehiago holakorik”, hortan geldi sekulako, eta libro egon.”



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, guretzat hiltzea onartu duzu: zato gurekin zilo zolan gaudenean. Emaguzu jatzartzeko indarra , ulertu dezagun zurekin dagoena ez dela inoiz garraitua. Emaguzu ere esperantza, sinesteaz lotsatuak girenean.

13° estazioa: Jesus gurutzetik jausten dute

“Nekearen ondotik, noren gainean konda dezaket ?”

Jainkoaren Hitza (Lc 1, 30-33)

Aingeruak erran zion: – Ez beldur izan, Maria! Jainkoak atsegin zaitu. Hara, haur-beharretan gertatuko zira, semea ukanen duzu eta Jesus emanen diozu izena. Handia izanen da, Goi-goikoaren seme deituko dute, eta bere aita Daviden tronua emanen dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izanen da betiko, eta haren erregetzak ez du azkenik ukanen.

Lekukotasuna

"Jesus, gurutzetik jautsi dutelarik, anaitasunezko eskuek eraman zuten. Zoin esku idekiko ote dira nere laguntzeko bizitzako bideetan ? Nere familiaren ganat itzuli, nere lekua berriz heien artean hartu, bainan nere beha egon ote dira ? Nere adiskideekin harremanak berriz lotu, bainan esku horiek guziek behar den biderat eremanen ote naute ? Nere lan eta egoitzarat itzuli, bainan nere



zigor bildumarekin, errex izanen ote da ? Kanpoan segitu presondegian barnatu dutan Jainkoarekilako harremana, bainan nun ? Norekin ? Zoin parropiak idekiko dauzkit bere ateak ?

Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia..

OTOITZA

Jesus Jauna, idek gure bihotza, jakin dezagun gure ondoan diren anai arriben sustengatzen, nola nahikoak izan diten hoiien historia, hoiien zauri eta esperantza. Lagun gaitzazu Eliza ideki baten eraikitzen, elkartasun eta begitarte onean.

14° estazioa: Jesus hilobian ezartzen dute

“Nere buruarekin pentsaketan, naizen bezala.”

Jainkoaren Hitza (Lc 23, 53-56)

Jesus gurutzetik jautsi zuen, hil-mihise batez inguratu eta harrian zilatu eta oraino nehor ehortzi gabeko hilobi batean ezarri. Bestarako prestaketen egiteko eguna zen, eta sabatoa hasiera zean. Galileatik Jesusekin etorri emazteak Josepen ondotik joan ziren; hilobiari behatu zioten eta Jesusen gorputza nola ezartzen zuten ikusi. Gero, gibelerat itzuli eta usaingozozko gantzugailuak prestatu zituzten.

Lekukotasuna

"Gu atxilotuak, sozietatetik kanpo atxikiak gira zonbait denborarentzat. Zonbait "lurperatuak" balire bezala senditzen dira, baztertuak direlaketaz eta jujatuak. Ainitzek beren burua defenditzen dute ez baitute hilak bezala egon nahi, bainan nola ikus norberak bere burua, bazter guzietarik ezabatua delarik ? Ez gira denak barneko azterketa baten egiteko gai; bainan irauten dugu, onartzen balin badugu bertze pertsona batzuek gutan sinesten dutela, basamortu hori trebesatzeko eta xutiaraziko gaituen poiektu baten asmatzeko gure laguntzerat prest direla. Bertze batzu harat hunat dabiltza galduak: gauden heieri beha."



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, borrokatzeko eta egun naizen hau izaiteko indarra eman dautazu. Lagun nezazu bide horri jarraitzen, handiago eta libre.

15° estazioa: Jesus piztua da


“Bizi berri batetara sortu, berritua naiz ?”

Jainkoaren Hitza (Lc 24, 5-6)

Bizi dena zergatik bilatzen duzue hilen artean? Ez da hemen, piztua da. Orroitz zaitzete nola mintzatu zitzaizuen Galilean zelarik oraino.

Lekukotasuna

"Presondegian, ate asko behar dira pasatu, bai eta mintzatzeko, edo ixiltzeko eta igurikatzeko denbora ezinago luzeak. Urteak eta urteak ‘hilobian’ egoiten balin bagira, nola biziberritu, hor ez baitira hiru egun aski ? Atxilotu baten berriz sortzeak dependituko du nolako kuraiarekin bere burua egiazki ikusiko duen, bere hutsa aitortuko, eta kanpokoekin harremanetan egonen. Bizi berri baten orde, sinets dezagun gure biziak aldatu direla, gure buruarekin egun guziz egin dugun lanari esker. “Ateratzea” asma ez dezakegun gogoeta bat da. Amets hori gutarik urrun da, baina badakigu egun batez lortuko dugula.”



Fleury-Mérogis eko atxilotuek egin marrazkia.

OTOITZA

Jesus Jauna, zure pizteak argiturik, lagun gaitzazu gure geroko biziak argitan ikusten eta esperantzan irauten. Zure Izpirituak kanbia ditzala beti gure bihotzak.

*Itzulpena :
Jean-Michel Barnetche
apeza.*